**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

IRAGARKIA, Técnicas Constructivas Juantxu Masustegui, S.L.ri honakoa jakinarazteko dena: zehapen-prozeduraren instrukzio-egileak zehapen-espedientearen gainean, 2006ko otsailaren 21ean, emandako Ebazpen-proposamena. 28811

EDIKTUA, Turismo sailburuordearen 2005eko abenduaren 30eko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bitartez, Astoreka Rural, S.L. enpresari aurrerakin itzulgarri bat ematen zaio, hartarako, Gauzatu-Turismo Programa aplikatuaz. 28815

**OSASUN SAILA**

IRAGARKIA, 374/07 Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketen hirugarrenentzako deia. 28818

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO por el que se notifica a Técnicas Constructivas Juantxu Masustegui, S.L., la propuesta de resolución de expediente sancionador dictada el 25 de junio de 2007 por la Instructora de procedimiento sancionador. 28811

EDICTO por el que se notifica la Resolución de 30 de diciembre de 2005, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se concede un anticipo reintegrable a la empresa Astoreka Rural, S.L. en aplicación del Programa Gauzatu-Turismo. 28815

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 374/07. 28818

## Pribatuen Iragarkiak

**LANTIK, S.A.**

IRAGARKIA, BFAren egoitzetan kokatutako hardwarea mantentzeko zerbitzurako eta mikroordenagailuen memoriak handitzeko sistema ezartzeko zerbitzurako lehiaketari buruzkoa. 28819

**FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNZAZIOA**

LEHIAKETA PUBLIKOA, irekia, Fundación Euskadi Kirola Fundazioarena, Fundazioaren korporazio-irudia, aplikazio eskuliburua eta komunikazio planaren diseinurako. 28820

## Anuncios Particulares

**LANTIK, S.A.**

ANUNCIO relativo al concurso para la prestación de servicios de mantenimiento del hardware instalado en las distintas sedes de la DFB e instalación de ampliaciones de memoria a microordenadores. 28819

**FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA**

CONCURSO PÚBLICO por procedimiento abierto, para el diseño de la imagen corporativa, manual de aplicación y el plan de comunicación para la Fundación Euskadi Kirola Fundazioa. 28820

# Xedapen Orokorrak

## KULTURA SAILA

### 6704

AGINDUA, 2007ko irailaren 17koa, Kultura sailburuarena, kirol modalitateen zabalkunde nahikoa ebaluatzeko eta kirol federazioak ofizialki onartuak izateko irizpideak finkatzeko dena.

Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 51.2 artikuluan xedatzen duenez, Euskadiko eta lurraldeko federazio berriak eratzeko, Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoetako foru or-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 6704

ORDEN de 17 de septiembre de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen los criterios para evaluar la implantación suficiente de las modalidades y decidir sobre el reconocimiento oficial de las federaciones deportivas.

El artículo 51.2 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, establece que para la constitución de nuevas federaciones deportivas vascas y territoriales se requerirá la aproba-

ganoen administrazio onarpena beharko da, eta onarpen hori Dekretuan bertan ezarritako irizpideak kontuan izanik emango edo ukatuko dute.

Irizpide horietako bat kirol modalitatearen zabalkunde nahikoari buruzkoa da. Bada, 51. artikulu horren hirugarren idatz-zatiak dioenez, federazio bat sortzeari begira kirol modalitate batek zabalkunde nahikoa duen ala ez erabakitzeko irizpideak Kultura sailburuaren agindu baten bidez finkatu behar dira, aurrez Kirolaren Euskal Kontseiluaren proposamena jaso ondoren.

Erregelamendu bidezko garapen honek berebiziko garrantzia du euskal federazioen sisteman, zeren irizpide edo betekizun horien baitan ebatziko baita lurraldeetako kirol federazioak eta euskal kirol federazioak ofizialki onartzen diren ala ez.

Agindu honek oso-osorik jasotzen du Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2007ko ekainaren 20ko bileran egindako proposamena, euskal federazioen sistema ordezkatzen duen Euskal Kirol Federazioen Batasunak aurkeztutako ekimen bati esker.

Ondorioz,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Agindu honen xedea da urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 51.3 artikuluan ezarritakoa garatzea, alegia, federazio bat sortzeari begira kirol modalitate batek zabalkunde nahikoa duen ala ez erabakitzeko irizpide orokorrak finkatzea.

*2. artikulua.–* Euskal kirol federazioak sortzeko zabalkunde nahikoa.

1.– Euskal kirol federazio bat sortu ahal izateko, kirol modalitate batek Euskal Autonomia Erkidegoan nahikoa zabalkundea duela joko da baldin eta egiaztatzen badu 500etik gora federazio-lizentzia aktibo dituela, kirolariak, teknikariak eta epaileak barne hartuta.

2.– Ondorio berberetarako, halaber, kirol modalitate batek nahikoa zabalkundea duela joko da baldin eta 30etik gora federazio-lizentzia aktibo baditu, kirol klub eta elkarteen artean.

*3. artikulua.–* Lurralde federazioak sortzeko kirol zabalkunde nahikoa.

1.– Lurralde federazio bat sortu ahal izateko, kirol modalitate batek bere lurralde historikoan nahikoa zabalkundea duela joko da baldin eta egiaztatzen badu 175etik gora federazio-lizentzia aktibo dituela, kirolariak, teknikariak eta epaileak barne hartuta.

ción administrativa respectiva del Gobierno Vasco y de los órganos forales de los territorios históricos, que la concederán o denegarán en base a unos requisitos que se encuentran enumerados en el mismo.

Uno de dichos requisitos es el relativo a la suficiente implantación de la modalidad deportiva. Pues bien, el apartado tercero de dicho artículo 51 establece que los criterios generales para considerar que una modalidad deportiva cuenta con suficiente implantación de cara a la constitución de la federación se establecerán mediante la correspondiente Orden de la Consejera de Cultura previa propuesta del Consejo Vasco del Deporte.

Se trata de un desarrollo reglamentario trascendental en la vertebración del modelo federativo vasco pues del establecimiento de tales requisitos o criterios depende la concesión o revocación del reconocimiento oficial de las federaciones deportivas vascas y territoriales.

La presente Orden reproduce íntegramente la propuesta realizada por el Pleno del Consejo Vasco del Deporte, en su sesión de 20 junio de 2007, gracias a una iniciativa presentada en su seno por la Unión de Federaciones Deportivas Vascas que representa al sistema federativo vasco.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto de la presente Orden es desarrollar la previsión contenida en el artículo 51. 3 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, y establecer los criterios generales para considerar que una modalidad deportiva cuenta con suficiente implantación de cara a la constitución de la federación deportiva.

*Artículo 2.–* Implantación deportiva suficiente para la constitución de federaciones vascas.

1.– Para la constitución de una federación vasca se considerará que la modalidad deportiva cuenta con suficiente implantación en la Comunidad Autónoma del País Vasco si acredita la existencia de un número de licencias federativas activas de deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces superior a 500.

2.– A los mismos efectos, también se considerará que la modalidad deportiva cuenta con suficiente implantación si el número de clubes o agrupaciones deportivas con licencia federativa activa es superior a 30.

*Artículo 3.–* Implantación deportiva suficiente para la constitución de federaciones territoriales.

1.– Para la constitución de una federación territorial se considerará que la modalidad deportiva cuenta con suficiente implantación en su Territorio Histórico si acredita la existencia de un número de licencias federativas activas de deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces superior a 175.

2.– Ondorio berberetarako, halaber, kirol modalitate batek nahikoa zabalkundea duela joko da baldin eta 7tik gora federazio-lizentzia aktibo baditu, kirol klub eta elkarteen artean.

*4. artikulua.–* Lizentzia aktiboa zer den.

1.– Zabalkunde nahikoa izateko betekizuna zehazteko, lizentzia aktibotzat joko da soilik dagokion kirol federazioa sortzeko aktaren aurreko hamabi hilabeteetan lehiaketaren batean parte hartu duten pertsona fisiko eta juridikoei dagokiena.

2.– Kirol edo elkarte batek kirol jarduerarik izan duela joko da, baldin eta dagokion kirol federazioa sortzeko aktaren aurreko hamabi hilabeteetan lizentzia aktiboa izan duten 10 kirolari baditu gutxienez.

3.– Federazio lizentzien kopurua kalkulatzeko, ez da pertsona fisiko bat behin baino gehiagotan zenbatuko, nahiz eta estamentu edo diziplina ezberdinetan agertu.

4.– Kirol federaziorik ez duen modalitate batek zabalkunde nahikoa duen ala ez ebaluatzeko, dagokion kirol jardueretan parte hartzeko gaitasuna ematen duten bestelako lizentzia edo dokumentuak federazio lizentziekin parekatuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Herri kirolak eta elbarrien kirola.

Herri kirolak eta elbarrien kirola babesteko eta sustatzeko betebeharraren indarrez, alor horietan ez da eskatuko agindu honetako gutxieneko lizentzia-kopurua.

*Bigarrena.–* Nagusiki diziplina ez-lehiakorrak dituzten modalitateak.

Nagusiki diziplina ez-lehiakorrak dituzten modalitateetan ez da eskatuko federazio lizentzien titularrek lehiaketetan parte hartzea.

*Hirugarrena.–* Aparteko gorabeherak.

Nahiz eta aginduko honetan ezarritako gutxieneko baldintzak bete ez, egoera hori justifikatzen duten aparteko egoerak badaude, modalitate batek zabalkunde nahikoa duela jo ahal izango da. Eusko Jaurlaritzako eta lurralde historikoetako organoek aztertu beharko dituzte gorabehera horiek, kirol federazioa ofizialki onartzen den ala ez erabakitzeko.

2.– A los mismos efectos, también se considerará que la modalidad deportiva cuenta con suficiente implantación si el número de clubes o agrupaciones deportivas con licencia federativa activa es superior a 7.

*Artículo 4.–* Concepto de licencia activa.

1.– Al efecto de determinar el cumplimiento de dicho requisito de la implantación suficiente sólo se computarán como licencias activas aquellas correspondientes a personas físicas y jurídicas que hayan participado en alguna competición durante los doce meses anteriores al acta de constitución de la federación deportiva correspondiente.

2.– Para que se considere que un club o agrupación deportiva ha tenido actividad deportiva deberá disponer de un número mínimo de 10 deportistas con licencia activa durante los doce meses anteriores al acta de constitución de la federación deportiva correspondiente.

3.– En el cálculo del número de licencias federativas no se computará más de una vez una misma persona física, aunque pertenezca a diversos estamentos o disciplinas.

4.– Para evaluar la implantación suficiente de una modalidad deportiva que no cuenta con federación deportiva se equipararán a las licencias federativas aquellas licencias o documentos análogos que habilitan a participar en las correspondientes actividades deportivas.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Herri Kirolak y deporte practicado por personas con minusvalía.

En atención al deber especial de protección y apoyo de la modalidad de Herri Kirolak y del deporte practicado por personas con minusvalías no se exigirá en dichos ámbitos el requisito mínimo de licencias establecido en esta Orden.

*Segunda.–* Modalidades con disciplinas mayoritariamente no competitivas.

En aquellas modalidades con disciplinas que mayoritariamente cuentan con actividad deportiva no competitiva no se exigirá que los titulares de la licencia federativa participen en competiciones.

*Tercera.–* Circunstancias excepcionales.

No se considerará que una modalidad carece de implantación suficiente cuando, a pesar de no reunir los requisitos mínimos establecidos en esta Orden, concurran circunstancias transitorias excepcionales que justifiquen tal situación. Tales circunstancias deberán ser apreciadas por los órganos del Gobierno Vasco y de los territorios históricos competentes para conceder y revocar el reconocimiento oficial de la federación deportiva correspondiente.

AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko irailaren 17a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIÓN FINAL

Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de septiembre de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

### 6705

1259/2007 EBAZPENA, urriaren 29koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oposizioaldian gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda amaierako puntuazio ordenaren arabera argitaratzeko agintzen duena. Zerrenda hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak destino dituzten goi mailako teknikarien lanbide taldeko abokatuen kategorian lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probetako lehiaketako eta oposizioko faseetan lortutako puntuazioen bereizitako zehaztapenarekin argitaratuko da.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 6ko 1125/2006 Ebazpenaren bidez egin zen abokatuen kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautaketa proben deialdia. Aipatu kategoria goi mailako teknikarien lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetakoak izango dira. Aipatutako Ebazpena 2006ko azaroaren 2ko EHAAn, 209. zenbakikoan, argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Oinarri orokor horiek 2006ko urriaren 24ko EHAAn, 203. zenbakikoan, argitaratu ziren.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendari nagusiaren martxoaren 13ko 92/2007 Ebazpenaren bidez agindu oposizioaldian

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 6705

RESOLUCIÓN 1259/2007, de 29 de octubre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación provisional de los aspirantes que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Letrado del Grupo Profesional de Técnicos Superiores con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 1125/2006, de 6 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Letrado del Grupo Profesional de Técnicos Superiores con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 209, de 2 de noviembre de 2006.

Mediante Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante Resolución 92/2007, de 13 de marzo, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud se ordenó la publicación en el Boletín